

2. JARDUERA

BAKE AHOTSAK

URTARRILAREN 30A
Indarkeria Ezaren eta
Bakearen aldeko
Eskola Eguna

Funtsezko kontzeptuak

- Elkarmenpekitasuna
- Irudiak eta pertzepzioak
- Gizarte-justizia
- Gatazkak eta konponbidea
- Aldaketa eta etorkizuna

Helburuak

- Indarkeria Ezaren eta Bakearen aldeko Eskola Eguna ospatzea (urtarrilaren 30a).
- Indarkeria-modu diferenteak identifikatzea.
- Haurrek gatazkak jasaten dituzten munduko tokiak ezagutzea.
- Gatazkak konpontzeko metodoak barneratzea.

Ebaluazioa

- Indarkeria jasaten dutenekiko enpatia-maila.
- Gatazketan erantzukizunak lehenesteko ahalmena.
- Errealitate hauen inguruan dugun ezagutzari buruzko izaera kritikoa.

Beharrezko materialak

- 1. eranskina. Fitxa: Arazoak sei urratsetan konpontzea.
- 2. eranskina. Fitxa: Abraham Mateoren Lanzalo kantaren letra.

Baliabideak

- Bideoa: *El viaje de Imanol*. UNICEF-EU
- Bideoa: *Imanol presta su voz a Aya*. UNICEF-EU
- Bideoa: *Lánzalo*. Abraham Mateo.
- Bideoa: *El olvido de la memoria*. Iñaki Elizalde.

1. Hurbileko eta urrutiko gatazkak

Gertakari bortitz baten lekuko noiz izan ziren galdetzen hasiko gara gelari:

- Noiz ikusi duzu azken aldiz borroka bat (kalean, institutuan, interneten, telebistan...)? Parte hartu zenuen? Zer gertatu zen?
- Gerran dagoen herrialderik ezagutzen duzu? Nork hartzen du parte? Zergatik hasi zen? Nola ezagutu zenuen?

Galdera hauen bitartez taldearen abiapuntua ezagutuko dugu, baita euren inguruan eta kontzientzian ematen diren adierazpen bortitzez nola jabetzen diren ere. Horrela ondorioztatu ahal izango dugu indarkeria gatazkei aurre egiteko moduetako bat baino ez dela, eta gatazka horiek modu baketsuan konpontzen ikasi behar dugula.

2. Gatazkak konpontzeko sei urrats


Beranduago bi ikasleri antzetzeko eskatuko diegun egoera gatazkatsu bat aukeratuko dugu. Hona hemen adibide batzuk (ikastetxean ematen diren egoerak proposa daitezke):

- Pertsona bat etxean ikasten saiatzen ari da, familiako batek musika entzun nahi du eta bolumena maximora igotzen du.
- Pertsona batek berea ez den herrialde batetik datorren beste bati iseka egiten dio, neurritz kanpoko azentuarekin hitz eginez.
- Norbaitek bere lagun onenari opari berezia zen liburu bat uzten dio. Lagunak liburua itzultzen dioenean, liburua zikina dago eta bi orrialde puskatuta daude.
- Behartsuei laguntzen dien erakunde baterako boluntario-lana egin nahi du gazte batek, baina gurasoek ez diote uzten.

Bikote batzuk aukeratzen dira eta bikote bakoitzak hautatutako egoeretako bat antzetzu behar du. Ondoren, Gatazkak konpontzeko sei urrats fitxa aurkezten da, eta hirugarren parte-hartzaile batek fitxa hori aplikatzen du, bitartekari-lanak eginez. Bere zereginean lagunduko diogu eta paper horren garrantzia azpimarratuko dugu.

Zenbait saiakeraren ondoren elkarrekin gogoeta egiten dugu kasu bakoitzaren eboluzioaren, kasu bakoitzaren zailtasunaren, jarrera pertsonalen, bizitako sentimenduen eta beste gai batzuen inguruan.

2. JARDUERA



Imanol Arias presta su voz a Aya.



3. Haurren ahotsak

Imanol Ariasek Ayari ahotsa jartzen dion bideoa aurkezten dugu gelaren aurrean. Siria eta Palestinako gatazken inguruan zer dakiten galdetzeko aprobetxatzen dugu. Ondoren, "El viaje de Imanol" bideoa jartzen dugu eta filma analizatzeko eztabaidatzen dugu. Ideia batzuk:

- Zein da ikusten ditugun haurren jarrera?
- Zer egingo lukete guztien babesa izango ez balute?
- Euren bizitzak nolakoak uste dugu izango direla?

Eztabaidaren ondoren www.vocesdelosniños.es webgunea bisitatu, eta larrialdi-egoeran bizi diren eta euren eskubideak mehatxatuak dituzten haurren bizitzari buruz pixka bat gehiago ezagutu. Sare sozialetan kontuak dituztenak haur hauetakoren bati euren ahotsa jartzera gonbidatuko ditugu, webguneak proposatzen duen bezala.

Gaian sakontzeko, Iñaki Elizalderen "El olvido de la memoria" filma ikustea proposatzen da. Filma Kosovoko gatazkan grabatu zen, 90eko hamarkadaren amaieran, eta bi aldeetako haurren testigantzak biltzen ditu. Historian zehar akatsak zergatik errepikatzen diren aztertzen du filmak. Gaur egungo gatazka bat eta eurak jaio aurreko baina euren adinarekin protagonistek jasa zuten beste bat ikusi ondoren, zer pentsatzen dute? Zer sentitzen dute?

4. Lánzalo

Aurreko saioetan gatazkei buruz zerbait gehiago ezagutu ondoren, martxan jartzeko unea heldu da. Abraham Mateoren Lanzalo bideoa jartzen dugu.

Gelan azalduko dugu Abraham institutuan hasi zela gai humanitarioen inguruan interesa erakusten, Sareraturen bidez UNICEFen lana ezagutu ondoren. Beranduago, bere karrera artistikoari esker, hainbat proiektutan laguntzeko aukera izan zuen emanaldiak eta kontzertuak eskainiz. Aukera izan zuenean, urrunago joan nahi izan zuen eta, bere diskoetxearekin (Sony) batera, bideo hau egin zuen. Bere kanal ofizialean (AbrahamMateoVEVO) kanta honen erreproduktzioekin eta sare sozialen eta diskoen sinaduren bitartez egindako beste ekintza batzuekin lortutako irabaziak proiektu honetara bideratu zituen. Xehetasun horiek alde batera utzita, honen bidez erakutsi nahi dugu guztiok, modu batera edo bestera, gatazken biktimen alde laguntza eskaini eta elkartasuna adieraz dezakegula.

Kantaren letra analiza dezakegu transmititu nahi duen mezua ezagutzeko. Picassoren usoak bezalako irudiak, John Lennonnen abestiak eta abar ere dokumenta daitezke. Garrantzitsua da kontuan hartzea kantaren egilea Abraham Mateo bera dela eta hamabost urterekin idatzi zuela.

Orain ikasgelari edo ikastetxe osoari Bakearen Eguna nola ospatu eta mundu hobeago lortzeko zein mezu erabiliko dugun galdetzen diogu. Agian, guztiok elkarrekin abestia kantatzea, lipdub batean egokitzea, geure musika-jaialdi solidarioa egitea...



Ekitaldiaren inguruko argazkiak atera ditzakezue edo bideoa grabatu dezakezue ikastetxeko blogerako edo aldizkarirako albistea osatzeko.



Imanol Arias Siriako errefuxiatu-esparru batean Jordanian, *El viaje de Imanol* bideotik ateratako irudi batean.



Iñaki Elizalderen *El olvido de la memoria* bideotik ateratako fotogramak. Akatsetatik ikasten ote dugun pentsaraztera garamatza filmak.

2. JARDUERA

1. ERANSKINA GATAZKAK KONPONTZEKO SEI URRATS

<p>1</p> <p>PREMIAK IDENTIFIKATZEA</p>	<p>Zer behar duzue? Zehatz-mehatz zer nahi duzue?</p>	<p>Gatazka bizi duen pertsona bakoitzak erantzun behar dio galdera honi, beste pertsona bat salatu edo gaitzetsi gabe.</p>
<p>2</p> <p>ARAZOA DEFINITZEA</p>	<p>Zure ustez zein da arazoa?</p>	<p>Gela osoak lagundu dezake bi pertsonen premiak asetuko dituen erantzun bat aurkitzen. Gatazkarengatik kaltetutakoek definizioa onartu behar dute.</p>
<p>3</p> <p>ZENBAIT IRTENBIDE BILATZEA</p>	<p>Zenbat irtenbide posible bururatzen zaizkigu?</p>	<p>Proposamen guztiak jasotzen ditugu iritziak edo balorazioak egin gabe, proposamen horietako batzuk argi eta garbi baliagarriak ez iruditu arren.</p>
<p>4</p> <p>IRTENBIDEAK EBALUATZEA</p>	<p>Irtenbide honekin pozik egongo zinatekete?</p>	<p>Gatazkaren aktore bakoitzak irtenbideen zerrenda begiratzen du, eta zeintzuk onar daitezkeen eta zeintzuk ez azaltzen du.</p>
<p>5</p> <p>IRTENBIDE ONENA AUKERATZEA</p>	<p>Biok onartzen duzue irtenbide hau? Horrela konponduko lizateke arazoa?</p>	<p>Bi aldeek adostasun batera heltzeko ahaleginak onartzen eta aitortzen dituztela ziurtatzea.</p>
<p>6</p> <p>AUKERATUTAKO IRTENBIDEA NOLA APLIKATZEN DEN IKUSTEA</p>	<p>Gai honen inguruan berriro hitz egingo dugu benetan konponduta dagoela ziurtatzeko?</p>	<p>Plan bat ezarriko da irtenbidea ebaluatzeko, aurrerapenak eta aldaketak atzemateko, eta abar. Adinen eta gatazka motaren arabera, berehalakoa edo aldizkakoa izan daiteke.</p>

2. JARDUERA

2. ERANSKINA ABRAHAM MATEOREN LÁNZALO ABESTIAREN LETRA



*Quiero un mundo dibujado con Palomas de Picasso
con canciones de John Lennon en la punta de los labios.*

*Sigo aquí perdido en una ISLA,
todo lo que tengo es un papel.
Enviaré al mundo hoy un S.O.S
qué decir en pocas líneas, no lo sé.
Lánzalo, que navegue pásalo
que en las olas viaje la ilusión por UN MUNDO MEJOR*

*Lánzalo lo podemos intentar,
miles de botellas por el mar van llevando éste mensaje...*

Lánzalo, lánzalo... lánzalo...

*He escuchado el canto de sirenas,
he visto de lejos naufragar
tantos sueños presos de la ambición,
que al fin, no sé si es mejor vivir aquí o allí.*

*Lánzalo, que navegue pásalo
Que en las olas viaje la ilusión por UN MUNDO MEJOR
Lánzalo lo podemos intentar,
miles de botellas por el mar van llevando éste mensaje...*

Lánzalo, lánzalo... lánzalo...

*QUIERO UN MUNDO sin fronteras, sin banderas,
sin soldados disparando en las trincheras
a otros hombres asustados bajo leyes
de gobiernos pacifistas disfrazados
con oscuras ambiciones y sus cuentos tan baratos.*

*QUIERO UN MUNDO sin mentiras
que nos cuelan a diario poderosos que permiten
que se mueran mientras tanto,
sin escuela, medicinas, alimentos,
desahuciados alimentan la carrera de armamentos con
descaro...*

*(QUIERO UN MUNDO sin prejuicios, sin racismo, más humano,
siendo todos tan iguales, el moreno y el más claro,
el que nace en esta tierra o el que llega de otro lado,
el que piensa de otra forma siempre a todos respetando...
QUIERO UN MUNDO dibujado con Palomas de Picasso,
con canciones de John Lennon en la punta de los labios,
con claveles en la boca de fusiles recortados,
con paisajes en los ojos de ese cielo limpio y claro...
QUIERO UN MUNDO sin los bosques por incendios arrasados
por los turbios intereses de unos cuantos desalmados,
sin basura sobre el agua de los ríos
que otros cuantos van vertiendo por
negocios sin remedio a su paso.)*

*Lánzalo, que navegue pásalo
Que en las olas viaje la ilusión por UN MUNDO MEJOR
Lánzalo lo podemos intentar,
miles de botellas por el mar van llevando éste mensaje...
Lánzalo, que navegue pásalo
que en las olas viaje la ilusión por UN MUNDO MEJOR
Lánzalo lo podemos intentar,
miles de botellas por el mar van llevando éste mensaje...
Lánzalo, lánzalo... lánzalo*

Sigo aquí perdido en una ISLA.